

Hil arte bizi

Koldo Ordozgoiti Juanenea

Heriotzaren inguruko ohiturak sakon aldatu dira gure artean azken urte hauetan. Gizartearen bilakaera azkarrarekin batera, heriotzaren inguruko pentsaerak eta usadioak goitik behera aldatu ditugu, nahiz agian, begi bistakoak izanda azaleko eta itxurazko ohituren eta jarrerren eboluzio eta mudantzak, aldaketen benetako sakontasunaz ez gehiegi jabetu izan. Eta iraultza hori, neurri handi batean, XX. mendearen azken laurdenean eta hasi berri dugun hirugarren mila urte honetan gertatu da, gure begi bistaren aurrean eta hein batean gu geu eta gure guraso eta aiton-amonak aldaketa horien protagonista izanda. Eta honetan, bederen, katea eten egin da.

Europako beste hainbat herrialdeetan bezala, Euskal Herrian heriotzari lotutako ohiturak kristautasunak markatu ditu, gure kasuan Eliza katolikoak, katolizismoaren ukituarekin. Baina erlijio jakin horretatik harantzago, edo hobe esanda, horrekin batera, heriotzaren inguruko usadio eta sinismenetan egun arte iritsi zaizkigu iragan zaharragoekin lotura duten uste, erritu eta ohiturak.

“Hil arte bizi” esan ohi da euskaraz. Entzuna dut gure etxean beste esaldi hura: “bizi den guztiak herioa zor du”. Esaldi batak zein besteak gure lehenagokoek heriotza nola ikusten zuten adierazten digute eta agian erakusten ere, guk ez bezala, lehenagoko belaunaldiek heriotzarekiko hartu emana era askoz eta hurbilagoa, arruntagoa gertatzen zitzaiela. Bizitzaren parte zuten. Jaio ginen, bizi gera, herioa zor dugu. Sinismenak izan zitezkeen horren arrazoi, oso urte gutxi atzera joz gero, gure lehenagokoek heriotza bizimodu baten amaiera eta beste baten hasiera muga egiten zuen gertaeratzat jotzen zuten, transito edo aldaera bat. Eta horregatik, agian, heriotza ez zen ohiko bizitzatik ezkututzen, egungo gizartearen egiten dugun moduan.


Gogoeta honetako aitzakia, artikulu honekin doazen bi argazkiak eman zidaten. Nahiz orain ehun urtekoak dirudi, argazkiok gerra ondoren ateratakoak dira; bertan azaltzen den gure birraitonaren heriotza urtea kontuan izanda, beti ere, 1944. urtea baino lehenago eginak dira. Argazki beraien historia bitxia da, bi irudi hauek XX. mendeko berrogeita hamargarren hamarkadako lehen erdian iritsi ziren gure familia.

Donostian bizi zen ahaide batek argitalpen batean aurkitu, bere osaba ezagutu eta Doro Juanenea gure izeba zenari lehenik eta honek gure amari eman zizkion eta estimu handiz gorde izan dituzte aitona zena, Migel Eoin Belaunzaran, bertan azaltzen zenez. Orduz gero jatorrizko irudi haiek gure amaren etxean dira.

Garaiko agerkari grafikoren batean edo argitaratuak, argazkiok orria osoa hartzen dute, zurian markoztatuak, oin azpian bakoitzaren titulua, Dolua Berastegin eta Berastegiko emakume elizkoiak, lau hizkuntzetan (ingelesez, gaztelaniaz, alemanez eta frantsesez) dutelarik. Argazkien orri ifrentzuan Euskal Herriko bestelako irudi etnografikoak jasotzen dira, esaterako arrantzele batena. Ezin jakin nor izan zen argazkien egilea eta non, zein motatako agerkarian, argitaratu ziren. Gaiak eta argazkien kalitatea ikusita XX. mendeko argazkilari etnografikoren batenak izan daitezkeela igarri daiteke.

Bi argazki horietan Euskal Herrian XX. mendearen lehen hamarkadetako gizonezkoen eta emakumezkoen doluzko jantziak eta ohiturak irudikatzen zaizkigu. Jantzeretan bereziki gizasemeena aipagarria gertatzen da, argazki hau Berastegin egin zenerako jantziok bestelako lekuetan galduak zirelako ia, nahiz XIX mendean hego Euskal Herri osoan ohikoa izan doluzko janzkera hori. “Ritos funerarios en Vasconia”, heriotza ohiturei buruzko Euskal Herriko Atlas Etnografikoaren ikerketaren atalean lutozko jantzi zehatz horien aipamena jasoa da eta horren antzeko jantzia duen mende hasierako argazkia azaltzen da. William A. Douglasssek, bere “Muerte en Murelaga” ikerketa bikainean, dolu janzkera hori Bizkaiko Aulestian joan den mendeko lehen hamarkadetan eta beti ere gerra aurretik galdu zela aipatzen du.

Kopako kapelua, kapa handia eta horren azpitik jaka eta txalekodun traje beltza. Horiek osatzen zuten gizonezkoen doluzko jantziak, argazkian ikus daitezkeen moduan. Jantzi horiek adin nagusitasunera iritsitakoan, batzuen kasuan ezkontzerakoan, egiten omen zituzten eta adin nagusitasun horren adierazgarri ere baziren. Estatus ekonomikoa adieraziko zuten, litekeena, hots herriko gizaseme guztiak ez zuten izanngo jantzi erritual hori, baina argazkian azaltzen diren



hiru gizasemeetatik bat maizterra zen eta beste bien kasuan beraien baserriak gorriak eta beltzak ikusita eta lan asko eginda eta asko sufrituta, familia aurrera ateratzeko lain baino ez zuten ematen.

Argazkiak Berastegiko eliz aurrean ateratakoa dira. Estalitako eliz atari hau egundaino iritsi zaigu, garai batean, udaletxea eraiki aurretik, eliz aurre horretan burutzen ziren herriko batzarrak eta udalaren bilerak, horren lekuko han gordetzen den pie-larria, edo idazkariarentzako -fiel- harrizko mahaia, orain dagoena XVIII. mendean herritar batek herriari oparia da. Argazkiok atera ziren denboran, aipatutako mahai horretan uzten ziren hildakoen zerraldoak eta horren oihartzuna, ohitura izan zenik ahaztuta izan arren, eliz atariari oraindik orain ematen zaion ize-nak gorde izan digu: zimitirioa. XX. mendearen lehen erdialdean, osasun arrazoia medio, ezin baitziren zerraldoak elizan sartu. Betikoa dirudi hilotza bertan dela hileta-elizkizuna egitea, baina duela berrogeita hamar urte arte elizan sartzen zena zerraldoa irudikatzen zuen katafalkoa zen.

Garai haietan, eta duela gutxi arte, heriotza ez zen bakoitzaren kontua, famili barruko gauza, gizarteko jazoera baizik. Eta horren aurrean nabariak ziren

auzokoen arteko loturak eta horri lotutako egin behar jakinak. Orduan oraindik auzokoen ardura ziren gerora hildakoaren senitarteak guztiz bereganatu dituen zereginak. Argazkiak zer egin horietako batean, hildako edo arimen aldeko elizkizunen bateko atarian, hartu ditu bi belaunaldi desberdinekoak ziren hiru lagun horiek. Hor ageri zaizkigun hiru gizasemeak auzokoak ziren, Errekaldenea, Kalexa eta Iturriondoeña baserrietakoak, aurrez aurre dauden hiru baserrietakoak. Errekaldeneko Migel Esoin, gure birraitona, hiruren artean zaharrena, 1858an jaiotakoa, beste biak, Kalexako Juan Kruz Ansa 1875ean jaiotakoa eta hau baino urte gutxi batzuk gazteagoa zen Urkizu, Iturriondoeneko maizterra.

Badirudi, beraz, argazkilariak hileta edo dolu elizkizunen batetaz baliatu zela argazkiok egiteko. Hala ere, gizasemeen argazkian ez bezala, doluko jantziekin azaltzen diren emakumeen kasuan, argazkilariak berariazko konposizioa egin zuen; antolatutako argazkia da hau, ez baitago elizaren barruan aterata; aldiz, eliz atarian jaso zen, agian argi naturalaz baliatzeko argazkia egiterakoan. Bi irudiok bikain islatzen dute ez bakarrik janzkerak baita ere heriotza errito eta ohituretan emakumezkoen eta gizonezkoen zeregin desberdinak. Hileta-elizkizunetan, luto-bankuak, elizako lehen ilaran zeudenak, gizonezkoentzat ziren. Familiako emakumezkoak jarlekuan, edo hilobi sinbolikoaren gainean esertzen ziren eta horrela zen hildako eta arimekin lotutako elizkizunetan eta jakina, hauek ez ziren bakarrik hileta egunera mugatzen.

Zendutakoaren hurbilekoek jantzi ohi zuten eta burutik belaunetaraino hartzen duen mantu beltza daramate argazkiko hiru andrazkoak. Mantelina beltza baino luto handiagokoa zen eta mantu beltzaren azpian doluko bestelako janzkera daramate, txaketila eta gona beltza, galtzerdi beltzak eta lepotik oinetaraino hartzen zuen soingaineko beltza itxia. Arrosarioa eta mezetako liburua eskuetan, otoitz egiteko gisan azaltzen zaizkigu Josefa Urkizu, Ospitaleneko andrea, Luisa Olaetxea, Etxoin baserriko andrea eta Mikaela Jaka, Jaundegiko andrea, hiru baserri hauek hiru auzo desberdinetakoak dira.

Hiru etxeakoandreak ez zituzten fotografia-tu bakoitza bere etxearen jarleku edo hilobiaren ondoan, eta ezin jakin, bestalde, hiru hobi horiek elkarren ondoan izango ziren Berastegiko elizaren baitan. Arbasoen eta defuntuen aldare ziren jarleku edo hilobi sinboliko horiek, etxe emakumeen ardurapekoak ziren eta sinbolismoz beteak zeuden. Argizaietan pizturik ziren argizariak eta kandelak betirako argia irudikatzen zuten eta bertan egiten ziren beste mun-

durako bizitzan hildakoen aldeko otoitzak zein janari eta diru eskaintzak. Hileta mezetan eta doluko elizkizunetan hildakoen etxeko emakumeek argia pizten zuten -argizariak eta kandelak-, ogia eta laboreak eta dirua uzten zituzten etxeko defuntuen arimen eta arbasoen arimen alde.

Andrazkoen argazkian ohitura horietako batzuk islatu ditu argazkilariak, hor dira argizaiolak argizagia edo ezkobildua pizturik dutelarik eta hor azaltzen da jarlekuan jartzen zen eta Berastegin "sepultura" izena duen zur kutxa berezia, horren gainean jartzen ziren, argazkian azaltzen den moduan, kandelak.

XIX. mendean atera ziren Euskal Herriko elizetatik hilerriak kanposantuetara eramateko, Ipar Euskal Herrian kanposantuak elizaren inguruan garatu ziren

moduan, Hegoaldean hilerri berriak elizetatik aparte egin ziren. Hala ere eta XX. mendeko hirurogeigarren hamarkada arte, elizetan hauen oin osoa hartzen zuten bankuak zabaldu ziren arte, etxeek gorde zituzten jarlekuak, hots hilobi sinbolikoa, eta bertan gauzaten ziren hileta dolu eta oro har arbasoen inguruko eginkizun sinbolikoak. Eliz barruko hilobi sinbolikoen galera lehenago gauzatu zen hirietan herrietan baino eta oro har aldaketa horrek hilerriko hilobiari pasa zion sinbolismoa. Neronek, eta laster mende erdia beteko dut, ez ditut ezagutu ohitura horiek eta aldiz betidanik kanposantuko hilobien inguruko ohiturak eta hauek ere biziki aldatu dira azken urte hauetan. Aldaketak, aldaketa, eta edozein kasutan, bi argazki hauek aukera eskaini digute izan zen eta jada ez den mundu bati begirada emateko. ■



Berastegiko emakume elizkoiak.